

4. Diru iturriak

Gure enpresak dirua lortuko du nabarmenki gure produktuaren salmentetatik. Produktu bakoitzak 400€ balio du, eta hiru urteko epean ordaindu beharko dute. Hilabetero ordaindu behar duten diru-kantitatea askea da, baina ezin dute hiru urte pasa produktua ordainduta egon gabe.

Urte batean 1.000 produktu salduko dira, beraz urte batean lortutako diru sarrerek 400.000 eurokoak izango dira.

Bestetik, gure web orrialdetik edo gure ArgiMaria dendara joaten, donazioak egiteko aukera emango da Cáritas fundazioari. Nahi duenak nahi duen ekarpena egin ahalko du nahi duen edozein momentuan.